

## 5. Taldekako Jarduera

### GEOGEBRABOOK: Geogebra murgiltzen

#### Helburuak:

- Geogebra programaren oinarriko funtzioak identifikatzea.
- Geometria lantzeko ariketa desberdinak burutzea Geogebra programan.
- Geogebra, ariketa pertsonalak eta dinamikoak sortzea.
- GeogebraTube-n GeogebraBook liburuska sortzea eta ikas-komunitatean zabaltzea.

#### Argibideak:

1. Lehendabizi, **Geogebra** programa instalatu behar duzue ordenagailuan. Horretarako, Google Driven ondokoa jarraitu:

BERRIA → Gehiago → + Konektatu aplikazio gehiago → Geogebra

2. **GeogebraTuben** kontua eratu eta Geogebra programaren hizkuntza **euskera** aukeratu.

3. Geogebra mintegian ikusitakoa birpasatzeko Alud-en eskegitako ondoko **bideotutorialak** ikustea gomendatzen da:

Geogebra orokorra:

<http://ikt.ekigunea.eus/eu/aplikazioak/geogebra>

Geogebra 2D:

<http://ikt.ekigunea.eus/eu/aplikazioak/geogebra/2D>

4. Taldeka, Geogebraarako proposatutako **10 ariketak ebatzi** behar dituzue. Nahi izanez gero, GeogebraTuben zuen taldea era dezakezue ariketak bertan zuzenean gordetzeko.

5. Ariketa horiek **Geogebra liburuska** batean bildu behar dituzue GeogebraTuben. Liburuaren izena: **MBD\_x. taldea** izango da. Liburua eratzerakoan, jarraitu ariketa zerrendarako proposatutako nomenklatura, kapituluak, etab.

6. **8. Kapitula** eratu eta **Gure Jarduerak** izendatu. Bertan, zuek **asmatutako 5 jarduera** planteatu itzazue. Geometriaren edozein eduki-multzo lantzeko baliogarriak izan daitezke. Arikearen enuntziatua eta galderak liburuskan bertan erantsi.

7. **9. Kapitula** eratu eta **GeogebraTuben murgiltzen** izendatu. Bertan, GeogebraTuben agertzen diren 5 jarduera gorde itzazue zuen ikasleekin etorkizunean erabili ahal izateko. Jardueren dinamikotasuna positiboki baloratuko da.

**Entregatzeko epea eta formatua:** Apirilak 22, liburuaren esteka elkarbanatu irakaslearekin.

**Ebaluazio- irizpideak (Errubrika)**

| <b>Irizpideak</b>                                    | <b>Bikain, 9</b>                                                                                                          | <b>Oso Ongi, 7</b>                                                                                                        | <b>Nahiko, 5</b>                                                                                                                         | <b>Eskas, 2</b>                                                                                                                         | <b>Ezin da onartu, 0</b>                                   |
|------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------|
| <b>Geogebra book liburuaren aurkezpena (% 10)</b>    | Liburua ondo antolatuta dago kapituluak eta ariketak modu antolatuan azalduz. Liburua pertsonalizatu dute.                | Liburua ondo antolatuta dago kapituluak eta ariketak modu antolatuan azalduz.                                             | Liburuan ariketak agertzen dira noizbehinka kapituluak antolatuta.                                                                       | Liburuaren antolamendua oso eskasa da. Kapituluak gabe, desordenatuta...                                                                | Ez du Geogebra book libururik eratu.                       |
| <b>Proposatutako ariketen ebazpena (% 60)</b>        | 10 ariketak zuzen ebatzi ditu                                                                                             | 8-9 ariketa zuzen ebatzi ditu                                                                                             | 6-7 ariketa zuzen ebatzi ditu                                                                                                            | 4-5 ariketa zuzen ebatzi ditu                                                                                                           | <4 ariketa zuzen ebatzi ditu.                              |
| <b>Asmatutako jarduerak (% 20)</b>                   | Geometria multzo desberdinak lantzeko ariketak proposatu ditu. Ariketak egokiak dira eta zuzen ebatzita daude (5 ariketa) | Geometria multzo desberdinak lantzeko ariketak proposatu ditu. Ariketak egokiak dira eta zuzen ebatzita daude (4 ariketa) | Geometria lantzeko ariketak proposatu ditu. Ariketak egokiak dira eta zuzen ebatzita daude, edota eduki multzo berekoak dira (3 ariketa) | Geometria lantzeko ariketak proposatu ditu. Ariketak egokiak dira eta zuzen ebatzita daude edota eduki multzo berekoak dira (2 ariketa) | Ez du ariketarik proposatzen, edota gaizki ebatzita daude. |
| <b>Geogebra Tube-ko jardueren proposamena (% 10)</b> | Geogebra Tube ariketa aproposak eta anitzak bilatu ditu. (5)                                                              | Geogebra Tube ariketa aproposak eta anitzak bilatu ditu (4)                                                               | Geogebra Tube ariketa aproposak bilatu ditu (3)                                                                                          | Geogebra Tube ariketa eskasak bilatu ditu (2)                                                                                           | Ez du Geogebra Tube ariketarik bilatu                      |